**2** Ona hemen landareen nutrizioan parte hartzen duten elementuak eta betetzen dituzten funtzioak.

**a)** Osa ezazu infograma elementu bakoitzaren izenak txertatuz.

**ELEMENTUAK**

ura eta gatz mineralak | azukrea | sustraiak | klorofila | oxigenoa ($O_2$)

eguzki-izpiak | zurtoina | hostoak | karbono dioxidoa ($CO_2$)

# LANDAREEN NUTRIZIOA

Landareek, bizidun guztiek bezala, elikatu eta arnastu egin behar dute bizitzeko.

| ANIMALIAK | LANDAREAK |
| --- | --- |
| Elikatzeko, mantenugaiak eskuratu behar dituzte. | |
| Animaliok ahotik sartzen ditugu mantenugaiak. | Landareek sustraien bidez xurgatzen dituzte gatz mineralak eta ura. |
| Mantenugaiak, elikagai bihurtuta, gorputz guztira zabaltzen dituzte. | |
| Zainen eta odolaren bidez garraiatzen ditugu elikagaiak. | Zurtoinak dituzte xurgatutakoa hostoetara garraiatzeko. |




## NOLA SORTZEN DUTE ELIKAGAIA?

Eguzki-izpiek klorofilari eragindakoan gertatzen da. Zurtoinak garraiatutako gatzak eta ura, arnastean botatzen dugun karbono dioxidoarekin ($CO_2$) nahastu eta azukre bihurtzen dira. Elikagai hori zurtoinak garraiatzen du landare guztira. Prozesu horri fotosintesia deitzen zaio, eta hondakin moduan oxigenoa ($O_2$) kanporatzen da.

## ZER ARNASTEN DUTE?

Bizidun guztiak bezala landareek ere oxigenoa ($O_2$) arnasten dute eta karbono dioxidoa ($CO_2$) kanporatzen dute. Gauez argirik ez dagoenean fotosintesia ezin denez egin, arnasketa bakarrik egiten da. Egunez, fotosintesia dela eta, kanporatzen den oxigeno kopurua askoz handiagoa da arnasketarako erabiltzen dena baino.

**Hortik dator gauez landareek oxigenoa lapurtzen digutenaren ustea.**